



## Otaegik eta Rekondok jokatuko dute Urrezko Aizkolariako finala

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶ Elkarren aurka ariko dira ekainaren 10ean Azpeitian; Urrezko mailan, Arrospide ez da finalean izango

**HARRI-JASOTZEA** ▶ Perurena-Saralegi Leitzako bikoteak finalerdiko saioa galdu du Izeta II.aren eta Landarbideren kontra ▶ 7

### Emanaldia eskaini dute eskolako ikasleek, Kultur Astea girotzeko

**ALBIZTUR** ▶ Eskolako hurrek antzerkia, kanta eta dantza saioak eskaini dituzte; datozen asteburuetan jarraituko du Kultur Asteak ▶ 5

**TOLOSA** ▶

### Udate, Udalaren arreta zerbitzu berria

Egitasmoak «Administrazioarekiko hartu-emanak erosotzea» du xede ▶ 3

E. EZEIZA



**Diseinu eta kreazioahalmenean oinarritutako heziketa**

■ **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**

ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA - 2 ikasturte / 2000 ordu SARRERA - UBI - LH II - IEE II - edo HSAOL BATXILERGOA gainditua

■ **ARTE GRAFIKOEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**

ARTE GRAFIKOETAKO FAMILIA PROFESIONALEAN ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA - 2 ikasturte / 2000 ordu SARRERA - 2. BBB - LH I - IEE I - edo DBH gainditua



Heriz Pasealekua, 95  
20008 Donostia  
Gipuzkoa  
Tel: 843 910 873  
Fax: 843 910 875  
[www.ceinpro.es](http://www.ceinpro.es)

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶

### Eskatu baino laguntza apalagoak jasoko ditu euskarazko prentsak

Gaztelaniazkoen gehigarriek Hitzen bikoitza jasoko dute Jaurlaritzatik ▶ 2



KOMUNIKABIDEAK ▶

# Gaztelaniazko egunkarietako gehigarriak ia Hitzen bikoitza jasoko dute Jaurlaritzatik

Kultura Sailak ez du euskarazko prentsaren sektorearen milioi bateko hazkundea kontuan hartu eta arlo horretan igoera 59.050 eurokoa baino ez da

ERREDAKZIOA

Harrigarria da: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak hedabideen sailean diru laguntzak «euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko» ematen ditu, baina, eta adibide bat aipatzearren, gaztelaniazko egunkarien gehigarri askoz ere garrantzia handiagoa ematen die HITZA egunkariari baino.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzak astelehenean argitaratu zuen diru laguntzen deialdia, eta gaztelaniazko egunkari gehigarrientzat 507.650 euro bideratu dituen bitartean, tokiko egunkariarentzat 322.000 bideratu ditu (hor daude zazpi HITZAK, eta Kronika ere bai). Kronika-k iaz 28.000 euro jaso zituela kontuan hartuta, beraz, «euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko» Jaurlaritzaren diru laguntzetatik, gaztelaniazko egunkari gehigarriak ia Hitzen bikoitza jasoko dute 2006an.

Patxi Baztarrিকা Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak aurten onartu duenez, «oso garrantzitsua» da euskarak bere lekua izatea gaztelaniazko hedabide idatzietan. «Euskal hiztun eta irakurleen artean asko dira gaztelania nagusi duen prentsa irakurtzen dutenak. Gaztelania nagusi duten egunkariak animatu nahi ditugu euskara

TOKIKO EGUNKARIAK ▶ BAKOITZAK GUTXIAGO

AZKEN 3 URTEAK	2004	2005	2006
Urteko euroak	249.809	300.000	322.200
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza	64.136	34.211	?
Oarsoaldeko Hitza	67.848	44.782	?
Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza	83.824	45.629	?
Urola Kostako Hitza	43.722	47.965	?
Goierriko Hitza (deialdian sartu gabe)		46.883	?
Iruñuloko Hitza (Donostia) (sortu gabe)		52.400	?
Busturialdeko Hitza (sortu gabe)		(deialdian sartu gabe)	?
Kronika (Hernani)	34.000	28.130	?

LAGUNTZEN DEIALDIA

«Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko» da

ALDIZKARIEK

laz baino gehiago jasoko dute, baina 2003an baino gutxiago



Euskarazko prentsako 44 hedabideetako ordezkariek iaz Donostian egindako agerraldia, Eusko Jaurlaritzari diru laguntzan milioi euro bateko hazkundea eskatzeko. HITZA

hutseko gehigarriak sortu eta egunkarietan txertatzera». Iku-si da: era horretako produktuentzat diru partida sortu du, eta 507.000 euro bideratu.

Beste HITZA bat 2006an

HITZA egunkariaren atalean, kontuan hartu behar da iaztik beste HITZA bat dagoela —Busturialdekoa— eta, beraz, besteek iaztik diru laguntzetan jaitsiera izango dute, baita Kronika-k ere. Gauza bera pasatu zitzairen 2005ean: 2004an tokiko egunkariak 249.809 euro jaso zituzten, 2005ean 300.000, baina 2005eko laguntzen deialdian beste bi HITZA zeuden —Goierrikoa eta Donostiakoa— eta beste Hitzek eta Kronika-k laguntza txikiagoak jaso zituzten —Urola Kostakoa izan ezik—.

Berria egunkari nazionalak karrari ere igoera txikia aplikatu dio Jaurlaritzak: 122.000 eurokoa —Egunkaria-k 2002an, baina, Berria-k 2006an jasoko duena baino 126.000 euro gehiagoko laguntza zuen—. Tokiko aldizkariaren kasuan, iaz baino 47.059 euro gehiago jasoko dituzte aurten (408.120 euro, baina 2003an 487.511 jasozten zituzten).

Azken batean, Eusko Jaurlaritzak ez du aintzat hartu euskarazko prentsaren eskaera: aurtengo aurrekontuetan milioi euro bateko hazkundea, proiektu berriak egiteko eta orain artekoak sendotzeko. Jaurlaritzak arlo horretarako 59.050 euroko igoera baino ez du aurreikusit (3.280.000 euro 2005ean, 3.339.050 2006an).

950.000 eurotan handitu du aurten komunikabideei eman beharreko diru laguntzen atala, baina hazkunde horren zati nagusia bi atali dagokie: batek, tokiko telebistek, iaz baino 350.000 euro gehiago jasoko dituztelako; eta, bestetik, lehen esan bezala, gaztelaniazko egunkarietako euskarazko gehigarriak (507.650 euro).

IRITZIA ▶ LEIRE MONTES (TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-KO ZUZENDARIA)

## Gu ez gaude hau onartzeko prest

Eusko Jaurlaritzak ez du HITZA egunkariaren lana eta ekarpena errekonozitzen. Ondorio horixe ateratzen dezakegu «euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko» diru laguntza deialdia kontuan hartzen badugu. Eta gu ez gaude hori onartzeko prest. Euskarazko prentsa osatzen duten gainontzeko kideekiko errespetutik, baina inolako zalantzarik gabe, zera esan dezakegu: Hitzena da azken urteetan euskarazko prentsari ekarpen handienetakoa egin dion

proiektua. Gaur egun tokiko egunkariaren arloan, zazpi HITZA argitaratzen dira (Hernanin Kronika ere bai), eta HITZA denon artean 50.000 ale inguru banatzen ditugu egunero; 100.000 lagunetik gora jarri ditugu egunero euskaraz irakurtzen.

Baina Eusko Jaurlaritzak ez du ekarpen hori errekonozitzen, ez behintzat diru laguntza deialdi honetan. Urteetik urtera gero eta diru gutxiago jasotzen dute Hitzek, HITZA gehiago sortu diren arren, Jaurlaritzak ez duelako partida

hori ezta urrutitik ere neurri berean handitzen. Eta hori erabaki konsziente da, pentsatutakoa eta hausnartutakoa. Bestela, nekez uler daiteke Jaurlaritzak deialdi honetan egin duena: «Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko» deialdia izanagatik, iaztik hona jaso den ia igoera guztia (507.650 euro) «magusiki gaztelania darabilten egunkariaren euskara hutseko gehigarriak» laguntzeko erabiliko du Jaurlaritzak (HITZA guztientzat eta Kronika-rentzat 322.200 euro bideratu

ditu). Alegia, gaztelera egunkariak HITZA denek baino gehiago jasoko dute.

Iaz Patxi Baztarrík, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak esan zuen ez duela Hitzin lana ezbaian jartzen. Baina deialdi honek ezbaian jartzen du Hitzin lana, ezbaian jartzen du tokiko egunerokoaren ugaltzea eta hazkundea. Eta horrela, nekez garatu, sendotu eta normalizatu daitezke euskarazko hedabideak.

\* artikulua honen egile ere badira: Aitziber Iartza (Iruñuloko Hitza-k zuzendaria), Aimar Maiz (Goierriko Hitza-k zuzendaria), Iban Iza (Oarsoaldeko Hitza-k zuzendaria), Gari Berasalzuze (Urola Kostako Hitza-k zuzendaria), Maribi Ugareburu (Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza-k zuzendaria), Oihana Cabello (Busturialdeko Hitza-k zuzendaria)

**INGURUMENA ▶**

## Aste Berdean barna, erakusketa ikusgai

**ERREDAKZIOA**

Udaleko Ingurumen Departamentuak bultzatuta, Aste Berdearekin «herritarrei gogorarazi nahi diegu klima aldaketa dugula, aurre egin beharreko ingurumen arazo larrienetakoa. Beroketa globalaren ondorioak hainbat eremutan jasango dira». Hori dela eta, oraingoan, erakusketa bat eta hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak.

2006ko Aste Berdeak gai hau gertutik ezagutzeko aukera eskainiko du. Honetarako, parke arkeologikoan kokatuta dagoen Errota haur-liburutegian ikusgai izango da erakusketa bat. Zabalik izango da ekainaren 5a arte. Bestetik, bihar, 19:00etan, Agenda 21eko Aholkularitza Batzordearen bilera izango da, udaletxean.

**TELEFONOAK ▶**
**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Iruera.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
  - ▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaeran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Bestetik.**

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrerandi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

**UDALA ▶**


Udaleko ordezkariak, atzo, Udateren aurkezpenean. E. EZEIZA

## Udate harreta zerbitzua

«Administrazioarekiko hartu-emanak erositzea» du helburu egitasmoak

**ESTI EZEIZA**

Atzo, Tolosako Udalak abian jarri duen Udate zerbitzua aurkeztu zuten Jokin Bildarratz alkateak, Xabier Telleria espediente kudeatzaileak, Antton Lekuona Ingurumen teknikariak eta Jose Luis Unanue idazkariak. Alkateak azaldu zuenez, «egitasmo honek bi helburu ditu: jendea fisikoki nahiz telematikoki gerturatzenean, eroso sentitzea; eta, udaldea demokratizatuz, herritarren iritzia eta asmoa jasotzea». Udate zerbitzua erabili ahal izango da udaletxera bertara joz, 943 65 44 66 telefonora deituz, udate@tolosakoudala.net posta zerbitzuz edo www.tolosaldekoudala.net web orrialdean.

Udate Udalaren arreta zerbitzu berria da. Honen bidez, «herritarren eta administrazioaren arteko harremana hobetzea lortu nahi» du Udalak. Beraz, «prozesu bat jartzen da martxan, pixkanaka hobetzen joan beharko dena». Izan ere, iaz, uda aldera, udalbatzak egitasmo batzuk onartu zituen, jendearen ideia, asmo, iradokizun eta iritzia jasotzeko. Eta hau bideratzeko, Udalaren web orriaren kexa eta iradokizunen atala martxan jarri zen. Orain arte, 46 espediente jaso dira sail honetan, eta ia denak erantzunak izan dira. Telleriak agertu zuenez, «aurkeztutako kexa eta iradokizunei bost egun baino lehen erantzuna ematen zaie».

Zerbitzu berri hau Txiki Pla-

**JOKIN BILDARRATZ  
TOLOSako ALKATEA**

«honekin, prozesu eta dinamika bat irekitzen da, hiritarraren eta administrazioaren harremana hobetuz»

zasan laguntzarekin gauzatu da, bera izango baita goiz eta arratsalde jendearen telefono deiak erantzungo dituen. Bildarratzen esanetan, «erosotasuna lantzeko oso garrantzitsua izango da zerbitzu hau». Bestetik, web orrialdeak eskaintzen duen 24 orduko zerbitzuarekin, «prozesu eta dinamika bat irekitzen da, hiritarra eta administrazioaren harremana hobetzea lortuz». Hastapenetan dagoen Interneteko euskarri berriaren barruan, Udalaren eta hiriarren inguruko eguneratutako zenbait informazio zabalduko da. Bestetik, informazio datu base bat eta zerbitzu katalogo bat ere eskainiko dira. Besteak beste, Zerkausiaren inguruko datuak kontsultatu ahal izango dituzte interesatuek. Baita bando eta informazio ofizialen berri izan ere. Honez gain, duela hilabete batzuetatik hona, etxebizitzaren atalean, Voith-Gorostidiko proiektuaren inguruko informazioa, eta aurre-txanda zerbitzua eskaintzen dira.

Ekimen honen berri emateko, ekainaren 8an etxe guztietara informazio hau zabalteko liburuxkak banatuko dituzte.

**MENDIA ▶**

## 350 mendizaletik gora Txirrita mendi ibilaldian

Maila ona erakutsiz, orokorrean, denbora ona egin zuten parte-hartzaileek



Mendizaleek Aralarko adiskideen aterpetxean, Igaratzen. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Eguraldia lagun, 357 mendizalek hartu zuten parte VI. Txirrita Mendi Ibilaldian. Oargi mendi elkarteak antolatuta, Amezketatik abiatu eta hama bi ordu inguruko ibilbidea gauzatu zuten kirolariek, Aralarko gailurretatik barna. Lehenengoak, eguerdiko orduiak aldera iritsi ziren helmugara, 7 ordu inguru behar izan zituztelarik mendizerra zeharkatzeko. Azkenekoak, berriz, 19:30etan amaitu ahal izan zuten ibilaldia.

Antolatzaileen esanetan, «ikuspena ona zen, eta hori da garrantzitsua». Horrela, maila ona erakutsiz, eta ezbeharririk gabe, izena emandakia denek amaitu zuten mendi ibilaldia. Lau besterik ez ziren izan martxa bertan behera utzi zutenak.

Amaieran, parte-hartzaileen artean mendirako materiala zozketatu zuten, Aralar Kiroalak-ek eskainita. Bestetik, irterean, partaide bakoitzari txartel bana eman zitzaion hasieran, eta ibilbidearen amaieran, txartela kontrolen



Parte-hartzaileetako bat. HITZA

zigu guztiekin jarrita erakusten zutenei diploma eta kamiseta eman zieten.

Ibilaldi hau Bosgarren Euskal Herriko iraupen luzeko ibiltarien zirkuitorako balio-garri zen. Martxari 06:00etan Amezketak Bixente aterpean eman zitoten hasiera. Denera, berriro Amezketa itzuli baino lehen, 45 kilometro osatu eta 13 kontrolgune igaro behar izan zituzten parte-hartzaileek.

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Beltza.** «HITZA argitaratzen duen Tolosa Herria Hedabideak presasak 2006ko kobraketa kanpainari ekin dio aldaketa batekin: ordaintzen ez duenak irailaren 1etik aurrera ez du ebean jasoko egunkaria. Zer deritsozu?». Sartu gure web orriari, eta eman zure iritzia.

**iragarki laburrak ▶**
**SALGAI**

**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai; Berrobin. Prezio negoziagarria. Telefonoa: 618 83 32 56.

**GALDUTAKOAK**

**Argazki kamara.** Igandean, Zegama-Aizkorri maratoian argazki kamara digitala galdu da. NikonColpix marka, Lowepro fundarekin. Deitu 627 91 14 44 telefonora.

## ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN



## 75 herritar inguru elkartu ziren Atxulondora egindako ibilaldi «arrakastatsuan»

**Erredakzioa** ▶ «Arrakastatsua» izan zen pasa berri den igandean zizurkildarrek Atxulondora egindako ibilaldia. 75 bat herritar elkartu ziren Zizurkilgo txoko berezi hori ezagutzeko. Batzuk 18 kilometroko ibilbidea egin zuten oinez. Beste talde batek atoi baten gainean egin zuen ibilbidearen zati bat, gero 6 kilometro inguru ibiltzeko para jezegun horietatik. «Familia osoak etortzeko aukera izaten dute horrela,

haurrentzako ibilbide luzea gehiegi delako», azaldu du Joxin Azkue ibilaldiaren bultzatzaileetako batek. Inguru horietako bideak garbitu eta txukuntzeko Udalak egindako lana ere nabarmendu du Azkuek. Atxulondoko burdionolari buruz zenbait azalpen eman zituzten antolatzaileek eta ondoren bazkaria egin zuten, trikitixaren doinuekin eta guzti. HITZA

# Herria irudietan gordetzeko DVDa argitaratu dute

Herriko historia, txokoak eta ekitaldiak jasotzen dira ikus-entzunezkoan

IMANOL GARCIA

Herriko historiari buruzko liburua, mapa toponimikoa, herriko ondarea eta baserriak argazkitan, eta orain, DVDa. Ainhoa Larrea Kultura eta Euskara teknikariak zehaztu duenez, «herriari buruzko euskarri grafikorik ez genuela ikusita, garrantzitsua ikusi genuen horrelako egitasmoak bultzatzea. DVDaren eskaintzarekin guztia borobiltzen dugu». Herenegun

aurkeztu zuten Galdare enpresak osatutako Zizurkil herriari buruzko DVDa. Ordu erdi irauten du, eta laster ETBn emango dute, *Barne barnetik* saioaren baitan.

Aurkezpenean 50 lagun inguru izan ziren. Bakoitzak bere alea hartzeko aukera izan zuen. DVDa eskuratu nahi duenak udal bulegoetara edo udal letxera jo behar du, eta bertan lortu ahal izango du bost euroren truke. Beste euskarri guz-

tiak edo etxera bidali dira edo eskuragarri daude leku horietan ere, herriko historiari buruzko liburua, esaterako. Azken honi buruz, ale gutxi gelditzen direla gogorarazi du Larreak.

## Denetik pixka bat

Grabaketak herriko historia erakusten du, Zizurkil sortu zenetik gaur egun arte. Hainbat txoko eta leku eder ere erakus-

ten ditu DVDak. Bestalde, urtean zehar egiten diren ekitaldiak ere ikusi daitezke, abuztuko eta iraileko jaiak edo emakume baserritarra omenduz egiten den azoka, adibidez.

Ikus-entzunezkoa bi hizkuntzetan jarrai daiteke, euskaraz ala gazteleraz. Udalak Papele-  
ra del Oria enpresari eskerrak eman dizkio DVDa eta historiari buruzko liburua kaleratzeko eman duen diru laguntzaren-gatik.



DVDaren azala. HITZA

## ESKURAGARRI

DVDa eskuratu nahi duenak udal letxera edo udal bulegoetara jo behar du; bost euro balio ditu

## ANOETA ▶

**Segurtasunari buruzko mintegia, bihar KZgunean**

ERREDAKZIOA

Anoetako KZgunean tutorearen bisita izango dute bihar. 16:00etatik 20:00etara izango da bertan. *Segurtasuna eta babestekotasuna: Internet erabiltzeak suposatzen duen arriskuak eta nola prebenitu ezagutu izeneko mintegia emango du, 17:00etatik 19:00etara.*

Espero al zenuen?



TOLOSA MOTOREn zain duzu berritasuna

**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 03 37 • Faxa: 943 65 29 38 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

207



ALBIZTUR ▶ KULTUR ASTEA

# Eskolako ikasleen asteburuko lana arrakastatsua izan da

Jende asko bildu da eskolako antzerkira; egitarauaren beste ekintzetan parte hartzeko prest daude albizturtarrak



Gaztetxea edo gazta etxea antzerkia egin zuten Albizturko eskolakoek, besteak beste. ESTI EZEIZA

## NEREA URBIZU

Jende asko bildu zen Albizturko eskolara, ikasleek Kultur Astearen harira prestatutako ekintzak ikusteko. Jendea gustura aritu zen txikien lanaz gozaten.

Gaztetxea edo gazta etxea antzezlan eskaini zuten hastera. Ondoren, maindire batekin dantza egin zuten txikienek, 2 eta 5 urte bitartekoek, hain zuzen ere. Irakasle baten laguntza izan zuten horretarako, gitarra joz. Jarraian, belarri dantza egin zuten. Honetan, umeren bat edo beste despistatuta ibili bazen ere, ondo ibili ziren biko-

te dantzariak. Ikasle kozkorragoek orpo-punta dantzaren antzeko bat eskaini zuten. *Van Gogh-en belarrix*e deitu zioten hurrengo ekintzari; izan ere, La oreja de Van Gogh musika taldearen azkeneko kanta *play-back*-en egin zuten.

## Falta diren ekintzak

Asteburu honetan kirolari egingo diote lekua Kultur Astearen: igandean, 07:00etan, mendibaldia prestatu baitute. Herriko plazatik abiatuko dira. Txikortako gainetik Erriorako bidea egiteko.

Bertsolari ikastaroko biga-

rren eskola egingo dute ostiralean, Aitor Mendiluze eta Amaia Agirrekin, 20:00etatik aurrera, Kultur Etxean. Ekainaren 9an egingo dute azkeneko ikastaro eguna, ordu eta leku dearen.

Ekainaren 7an, 16:30ean, Joseba Ramirezek ipuina kontatuko die 3 eta 6 urte bitartekoek, eta ordu erdi beranduago, 6 eta 12 urte bitartekoentzat.

Ekainaren 11n pilota partidak egongo dira, eta inguruko pilotariak ariko dira, 12:00etan hasita. Telleria-Telletea Narranta-Galartzeren aurka, eta Belloso-Zapirain Renobales-Oteizaren kontra.

PILOTA ▶

## HITZA Pilota Txapelketa atzerako kontaktetan

Txikien kategorietan final-laurdenak daude jokoan aste honen bukaeran

## N. URBIZU

HITZA Pilota Txapelketa azken txanpara hurbiltzen ari da.

Gaur, kadeteen partidak Bidanien daude: Esnaola Urrutiaren kontra; Alduntzin, Urteagarekin; Zabaleta eta Goienetxe; eta Arzelus Ravinaren aurka.

Beotibarren, 20:30ean, Yoldi-Linzoain, Goikoetxea-Larrinagaren kontra ariko dira. Segidan, senior mailako Elurbe-Garmendia, Baez II.a-Gutierrez. Bihar, jubenilen partida Beotibarren jokatuko dute ere, 19:30ean. Goñi-Otxandorena, Ojuel-Galarragaren aurka.

Larunbatean, final-laurdenak izango dira benjaminen mailan. Alegian txikiak 17:00etan: Urdanpilleta-Aburuza, Almandoz-Azpiroz; Mitxelena-Azpiroz, Torral-Izagirre; Larrea-Zabala eta Telletea-Mitxelena; Salbarredi-Garziarena eta Sagastume-Altuna.

19:00etan, etzi, alebinen final-laurdenak Albizturren: Zelaia-Labaka, Untxalo-Apeztegia; Agirre-Erosarte, Izagirre-Azkarate. Gil-Iparragirre, Erdozi-Urkizu; Matxinea-Aranalde, Urdangarin-Jaka.

Adunan infantilen final-laurdenak, 19:00etan: Loi-di-Maiza, Urbieta-Zinkunegiren aurka; Taberna-Ugalde, Irastorza-Gailurralde arerio. Jaunarena-Olano Labaka-Arratibeekin. Urrutia-Zubizarreta, Nazabal-Karrera.

ALEGIA ▶

## Saharako haur bat udan etxean izateko aukera

Euskadiko Fronte Polisarioak aurreko urteetan bezala *Oporrak pakean* programa mar txan jarri nahi du. Saharar haur hauek 7 eta 12 urte bitartekoak dira. Alegiako Udalak ume baten gastuak bere gain hartuko lituzke; hau da, hegazkinek biletea (Tindouf-Bilbao-Tindouf), antolakuntza eta laguntzaileen gastuak. Haurra uztaile eta abuztuan hemen igarotzeko familiaren bat prest dagoen jakiteko, deialdi hau zabaldu dute. Familia batek baino gehiagok izena emango balu, zozketa baten bidez aukeratuko litzateke. Interesa duenak ekainaren 7a baino lehen Gizarte Zerbitzuetako bulegora deitu behar du. Hau da telefono zenbakia: 943 65 47 68.

ALEGIA ▶

## Maite Itsasoren erakusketa, Jubilatuenen

Ekainaren 21a arte egongo da Alegiako jubilatuen tabernaren erakusketa. Maite Itsaso tolosarraren margolanak izango dira, kasu honetan. Asteartetik igandera bitarte ikus daitezke, tabernaren ordutegi berean.

BEDAIO ▶

## Kazkabarra gogoan, Harri Jaia izango da bihar

Bihar Harri Festa egingo dute Bedaion, aspaldian izandako harri jasa gogoratuz. Meza izango da 11:00etan, eta jarraian hamaietako. Bertan, Mañukorta eta Larrañaga bertsolariak ariko dira Artubi elkarrekin. Bazkaria ere egingo dute, eta ondoren, Xabier eta Mikel anaiak trikita-ekin ariko dira. Afaria egiteko aukera ere izango da.

**Tolosaldeko Telefono Listin berria** egiten ari gara. Komertzio bat badezu, laister **TU Komunikacion**-eko bisita bat edukiko duzu. Hau da gure laziko portada, ez nahastu!

Hala ere, bertan publizitatea egin nahi badezu, 943214141/439200887/439200887 deitu dezakezu.

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**  
2006 Harpidetza kibraketa kanpaina

▶ **egunero** 8 orrialdeko **kalitateko egunkaria, euskaraz**  
▶ **uneoro** informazioa eskura [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

**KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA**

txartel berriekin abantailak!

**beherapenak** agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan **besteak beste**

**egunean 0,18 zentimoren truke etxean**

**INKESTA** ▶ Garrantzitsua iruditzen al zaizu HITZaren harpidetza egitea? Zergatik?**ABRAHAM OLANO**  
TXIRRIKIDULARI OHIA

«Euskarazko prentsa beharrezkoa da»



«Bai, euskarazko prentsa gutxi baitaukagu, eta hau beharrezkoa da. Garrantzitsua iruditzen zait jendeak euskaraz irakurtzeko posibilitatea izatea».

**CARLOS PEÑA**  
IGERILARIA

«HITZA garrantzitsua da euskaraz delako»



«HITZA oso garrantzitsua iruditzen zait eskualderako euskaraz delako. Egunero etxeraino herrietako albisteak heltzen dira, beste komunikabideetan ez bezala».

**XABIER USABIAGA**  
KIROL KAZETARIA

«Erosoa da etxean egunkaria jasotzea»



«Alde batetik eroso da etxean egunkaria jasotzea eta, bestetik, harpidedun izanik HITZA bezalako ekimenezko sostengua izan gaitzeko».

**J.M.ORMAETXEA, 'URKI'**  
SEGALARIA

«Ekimenak mesede egiten dio euskarari»



«Horrelako ekimen batek beti egiten dio mesede euskarari. Bertako informazioa lantzen du HITZAK; gai batzuk interesatzen ez bazaizkit ere, gertuko berriak ematen ditu».

**INAXIO PERURENA**  
HARRI-JASOTZAILEA

«Informazioa euskaraz ematen duelako»



«Euskaldunak izanik euskarazko informazioa ematen duelako garrantzizkoa da, eta gure herrietako notizia txikiak berri bestela izan ez genukeelako ere».

**IBARRA** ▶ GIZARTEA

## ERREDAKZIOA

Tolosaldeko herritar talde batek antolatuta, hilabete honetan hainbat hitzaldi egin dituzte Maiatza Gorria izenburupean. Gaur, *Euskal Herria Sozialista* aldizkaria aurkeztuko dute Ibarra Gaztetxean, 19:00etan. Ibon Artolak eman du ezagutzera Euskal Herriko aldizkari marxista berria.

«*Euskal Herria Sozialista* sozialismo iraultzailearen aldeko borroka zabaltzeko borondate guztiarekin dator, irabazi maximoaren legea ezartzen duen kapitalismo ustelaren aurka egiteko». Horrela aurkezten dute egileek aldizkari berria. Eurek diotenez, «terrorismoaren aitzakian eskubide demokratikoak murrizten dituen sistema dugu kapitalismoa, langile klaseak iraganean lortu izan dituen eskubide guztien murrizketa sistematikoa duelarik helburu». Hala, aldizkari honetan, «jendearen kontzientzia eragin asmoz», teoria marxista, historia, liburu marxisten kritikak, nazioarteko gaiak eta Euskal Herriko berri garrantzitsuenetako jorratuko dituzte. Gaur aurkeztuko duten lehen alea, esaterako, ondorengo gaiek osatuko dute: Errusiako iraultza, langile klasea gaur, CPEn aurkako borroka, Gaztetxeen indar iraultzailea, AHT Goierri eta Tolosaldean, PNVren sorrera eta politikaren historian, Boliviako iraultza, manifestu komunista (liburu kritika) eta ildo politikoa zehaztuko duen editoriala.

Kapitalismoaren aurkako borrokan aktiboki parte hartu nahi duten kideek egindako aldizkaria izango da *Euskal Herria Sozialista*: «Ez da albisteak aztertzea mugatuko, sistema ustel hau lurperatzeko alternatibak azaltzea dator, militantzia politikoa bultzatzea». «Marxista iraultzaileontzat askatasun nazionala, autodeterminazio eskubidea, lurraldetasuna, gure hizkuntzaren garrantzia, Alderdien Legearen

# ‘Euskal Herria Sozialista’ aldizkaria aurkeztuko dute gaur

«Sozialismo iraultzailearen aldeko borroka zabaltzeko»  
jaio da; Maiatza Gorriaren baitan emango dute ezagutzera



*Euskal Herria Sozialista* aldizkariaren lehendabiziko alea. HITZA

ezabatzea, euskal preso politikoaren eta errefuxiatuen etxerako itzulera oraineko eta etorkizuneko borrokaekin soilik ebatziko diren auziak dira», diote. «Gaur inoiz baino lehen antolamendurako, parte-hartze politikorako eta berrarmatze ideologikorako esfortzua egin behar da gure helburuak lortzeko; Espainiako eta Frantziako burgesiak ez diote Eus-

kal Herriari autodeterminazio eskubidea emango, ezta PSOEko buruzagi erreformistek ere. Herri aberats eta garatu bat gara eta, ondorioz, merkatu egonkor bat euren produktu eta negozioentzat. Europako Batasun kapitalistak ere ez du autodeterminazioa babesteko. Mehatxu larri bat izango litzateke bere estatuentzat. Modu berean euskal burgesiak, PNV-

EAK, nahiz eta subiranotasunari edota independentziari buruz hitz egiten duten, Espainiako merkatuari estuki loturik daude beraien klaseko kate sendoak direla eta».

Era berean, «Espainiako, Frantziako eta Europako proletarioarekin harremanak estutzeko oinarriak ezarriko» dituzte aldizkarian, «denok batera autodeterminazio eskubidearen erabilpena posible egingo duena eta borrokaekin jarraituz Europako herrien Federazio sozialista baten alde eta munduko Federazio sozialista baten alde eginez».

*Euskal Herria Sozialista* klaseko ikuspuntuaren ekarpena egin nahi du, Marxen eta Engelsen sozialismo zientifikoa defendatuz, «sozialismo utopiko burges txikiaren barietate guztiari aurre eginez. Egunko ordenean, asteko 35 orduen, langilearen diru-sarreen 10% gaindituko ez duen etxebizitza duin baten, denontzat lanpostu finko eta duin baten edota langabezia sorospen mugagabearen aldeko borroka autodeterminazio eskubidearen aldeko borrokaekin uztartuko duen sozialismo iraultzaile bat, oinarriko ekoizpen baliabideen, bankaren eta monopolioen nazionalizazioarekin elkarturik, kudeaketa ekonomikoan langile klasearen kontrola eta parte-hartzea ezarri, sozialismoa eraikitzeko langile demokrazia batean».

**LEABURU-TXARAMA** ▶

Tutorearen bisita izango dute gaur KZgunean

Gaur, tutorea izango da Leaburu-Txaramako KZgunean, 09:00etatik 13:00etara. Minutegia ere eskainiko du, *Bilatu zure liburua* izenburupean, 10:00etatik 11:00etara.

**IBARRA** ▶

Gorritira irteera eta 'Sua' filmaren grabaketa

Haitzetan Raju mendi taldeak, urteroko ohiturari jarraituz, Gorritira irteera antolatu du ekainaren 11rako, igandea. Aurten, gainera, berezia izango da irteera hori, Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak *Sua* filmerako grabaketa bat egiteko baliatuko baitu. 09:00etan da hitzordua, Ibarra plazan, eta hiru bat ordutan iritsiko dira Gorritira. Han, zikiro jatea egingo dute. Eta arratsaldean erreketaren eszena grabatuko dute han bertan. Filman eta irteeran parte hartzeko deia egin dute antolatzaileek. Izenematea, Ibarra Atari eta Zubiaurre tabernatan, Tolosako Denak-en eta 652 71 58 00 telefono zenbakian.

**IBARRA** ▶

Osoko bilkura izango da gaur arratsaldean

Gaur, 18:00etan, osoko bilkura egingo dute Ibarra udaldegian. IU-EB alderdiko Sergio Barreiro zinegotziaren kargu hartzea izango da. Kredituen aldaketa-espedienteak eta arau subsidiarioak izango dira, besteak beste, aztergai izango dituzten gaiak.

URREZKO AIZKOLARIA ▶

# Otaegik eta Rekondok jokatu dute Urrezko Aizkolariako finala

Urrezko mailan, ordea, Arrosperdi Olasagastik irabazi egin dio eta ez du ekainaren 10eko finala jokatzetik izanen

**ERREDAKZIOA**

Bi finalerdi jokatu dituzte igaro berri den asteburuan, gazteen Urrezko Aizkolari Txapelketan, eta bietan Tolosaldeko eta Leitzaldeko aizkolariak gailendu dira: Joseba Otaegi eta Jon Rekondo, hurrenez hurren. Ondorioz, elkarren aurka jokatu dute ekainaren 10ean Azpeitian jokatzeko den finala.

Igorren jokatu zituzten 23 urtez azpiko finalurrekoak. Txapelketan parte hartu duten bi taldeetako aizkolariak, gurutatu. Rekondok Mugertza

II.a izan zuen arerio: leitzarrak proba guztiak irabazi zizkion eta abantaila txoarekin, sailkapena eskuratu zuen. Zizurkildarrak, berriz, Atutxa II.aren jokatu zuen norgehiagoka, hain zuzen ere txapelketa honetako Gazte mailako txapelkunarekin, eta jardunaren bukaeran, Otaegik irabazi zuen. Biharamonean, Otaegik Gipuzkoako 2. mailako aizkolarien sailkapenean, San Inazio egunean jokatzeko den finalerako txartela ere eskuratu zuen.

Urrezko mailan, Arrosperdi Olasagastiren

aurkako neurketa eta horrekin finalean izateko aukera. Kolpeka, berdina, eta kana-erdikoa zutik ebakitzen ere, leabururak 10 segundoko aldea ateratzen igeldotzen; baina handik aurrerako lan motzetan atzetik ibili zen, 50 segundo galdu arte. Lan luzean eginahal handia egin zuen, baina 14:12ko denborarekin aurretik bukatu zituen arren, ez zen koska gainditzeko haina aurreratu, 23 segundogatik. Datorren igandean jokatu du Mündegiarekin, txapelketako 3. eta 4. lekua erabakitzeko saioa.

LEITZA ▶ URREZKO HARRI-JASOTZAILEA

## Finalerdiko saioa galdu du Leitzako bikoak

113ko kubikoak Izeta II.a eta Landarbideren alde erabaki du; erreklamazioak izan dira

**ERREDAKZIOA**

Perurena-Saralegik ez zuen Izeta II.a-Landarbideri irabazterik lortu Igorren jokatu zen Urrezko Harri-jasotzaile Txapelketako finalurreko eta ez dute, beraz, azken saioan jokatzeko modurik izanen.

Leitzarrak hortxe-hortxe ibili ziren. Izeta II.ak 100 kiloko zilindroari 38 jasoaldi eman zizkion, Perurenak baino 3 gehiago; 200 kiloko ordea, Saralegik 8 aldiz jaso zuen, Landarbidek baino 3 gehiagotan. Hala, 300 kiloko aldea berenganatu zuten leitzarrek. Baina, 113 kiloko kubikoarekin, txanda librean jada, 25 jasoaldi emanda, aiarrek aurrea hartu zieten (nafarrek, 20), alde 265 kiloa gaindituz. 100

kiloko bolarekin gutxienez, 3 gehiago egin beharrean gelditu ziren leitzarrak. 32na jasoaldirekin, berdina gelditu ziren, ordea, gipuzkoarrentzat gelditu hala, finalerako txartela.

Beste bikotea ere erabakita dago: Ostolaza-Barinaga. Kanporaketan berdinketa gertatu zela eta harri-jasotzaileen pisuaren ariora erabaki zuten finalista. Erabakiak desadostasuna eragin zuen Goenatxo II.aren eta Izeta III.aren gain, eta ez omen zuten saioko artarik sinatu. Leitzako saioaz ere Irigoien-Izeta IVak kexa aurkeztu dute, leitzarrei «epaileek jasoaldi bat gehiegi kontatu» izanagatik, finalerdi jokatzetik ez dute-lako izan. Epaileek onartu omen dute akatsa.

LEITZA ▶ FUTBOLA

## Banako emaitzarekin itzulera partiduaren esperoan dago Aurrera

Larunbatean etxean hartuko du Beriain; hor erabakiko da hurrengo faserako pasea

**J. ASTIBIA**

Igoerako ligaxkako aurreneko partidua jokatu berri du Aurrera, joanerakoa, Beriainen aurka. 1-1eko emaitza eginda itzuli ziren.

Partiduaren lehen zatian bi taldeek beren lekuari eutsi zioten «tentsio nabarmena» zelarik eta nahiko parekatuta, go-

lik gabe joan ziren atsedenera, zelai ondarrezkoa omen zen eta bertara egokitze ere astia behar izan zuten. Baina, bueltakoan, bertakoak nekatu ere egin ziren eta leitzarrak nagusitu ziren jokoan, «baina defentsako hutsegite bat egin genuen eta hortaz baliatu», Beriainek aurrea hartu zuen markagailuan. Aurrerak joko



Aurrera taldea baikor dago erabat. JAIONE ASTIBIA

mailari eutsi zion, ordea, eta gol aukerak sortu ere bai. Berdintzea lortu zuen.

Aitatu dutenez, Beriaineraino Aurreraren jarraitzaile mordoska, «talde polita» euren hitzetan, joan omen zen Leitzatik, eta eskertuta zeuden.

Emaitzari dagokionez, taldeko kideak baikor agertu dira: «Emaitza ona. Kanpoan gaitzea ez dena eta gol bat sartuz gero,

gainera, emaitza ona da», esan diote HITZARI.

Izan ere, igoerako honetan, emaitzez gain, sartutako golekin ere kontatzen dute, eta «kanpoan sartutakoek balio bikotza dute», zehaztu dute. Hala, Beriainen Aurrerako Urriagak sartu zuen golak balio erantsia duela esan daiteke: «Irabazita edo hutsnako berdinketarekin aurrera egiteko moduan izanen gara», azalduz.

Hitzordu garrantzitsua du Aurrerak, beraz, asteburu honetan. Aurrera eginez gero, zuzeneko igoerako partiduak geldituko zaizkio. Jakitera eman dutenez, oraindik ofiziala ez den arren, larunbatean jokatu dute partidua, 17:30ean. «Arkixkilen erabakiko da dena».

iragarki laburrak ▶

**Basabi Inmobiliaria**  
Pablo Gorosabel, 40  
1. planta - 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel. eta Fax: 943 65 55 87  
mug.: 659 368 994

**Alkiza.** Eraikitzen ari diren bi familientzako etxea, erdisotoa eta hiru solairu.  
**Alkiza.** Familia bakarreko txaleta, 4.000 m<sup>2</sup> dituen lursailarekin. 120 m<sup>2</sup> dituzten 3 solairu.  
**Andoain.** Santa Kruz auzoan, 80 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera.  
**Igogailuarekin.** Ikuspegi ederrak.  
**Andoain.** Santa Kruz auzoan, 80 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza salgai.  
Bizitzera sartzeko. Dena

kanpoaldera. Igogailuarekin. Ikuspegi ederrak.  
**Belauntza.** Bi familientzako etxea. Bi solairu, 270 m<sup>2</sup>-ko lursaila.  
**Berastegi.** Familia bakarreko txaleta salgai. 3.500 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.  
**Donostia.** Antigu auzoan, Eskolta Real, berritutako etxebizitza, kanpoaldera, sartzeko moduan.  
**Elosua.** Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.

**Tolosa.** Zumalakarregin, 150 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Egoera ezinhobean. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Eraikuntza berria azken etxebizitza salgai. 65 m<sup>2</sup> erabilgarri.  
**Tolosa.** Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea terrazarekin, bainugela eta komuna, garaje itxia.  
**Tolosa.** Santa Marian etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna. Egoera bikaina.

**Tolosa.** Belaten, trasteleku berriak salgai argiarekin eta aire-erazgailuarekin. 9.480 eurotik.  
**Tolosa.** Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai. Guztia erakusleho.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 45 m<sup>2</sup>-ko lokal ederra salgai. Erakusleho handia.  
**Errioxan.** Txaletak, etxe atxikiak eta etxebizitzak ditugu, Errioxan, Logroño eta Najeratik gertu.



**AGENDA**

**DEIALDIK**

Ibarra. Gorritira irteera antolatu du Haitzetan Raju mendi taldeak ekainaren 11n. Sua filmerako grabaketa ere egingo dute arratsaldean. Izen-ematea, Ibarra Atari eta Zubiaurre tabernatan, Tolosako Denak-en eta 652 71 58 00an.

**ERAKUSKETAK**

Alegia. Maite Ixasoren margolanak. Ekainaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.

**HITZALDIK**

Aitzo. Gure motor nagusiaren egitura eta funtzionamendua ezagutzeko. Garbiñe Agirre adituarekin. 17:00etan, Ertotzeko gelan.

**ZINE-KLUBA**

Alegia. Bahman Ghobadi zuzendariaren *Las tortugas tambien vuelan*. 21:30ean, Gaztetxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

Gaur  
 Leitza, Plaza, M. Elbarren 36, 112.  
 Tolosa, Ollarreaga, J. Martin Jose  
 Iraola, 10, 943 67 24 38.

**IRRATIA**

Txolarre irratia  
 (107.5, 101.2 FM)  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa  
 magazina: eguraldia Joxe Landarekin,  
 Hitzaren errepassoa, albisteak,  
 elkarrizketak, agenda, lehiaketa,  
 disko eskainiak...  
 18:00-19:00. Irauli uhinak.  
 21:00-22:00. Bide okerretik.  
 22:00-23:00. Street noise.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



4 urtekoek lo egiteko abestia eskaini zieten ikus-entzuleei (ezkerrean); 5 urtekoek untxiei buruzko kantua. I. GARCIA

**'Ladies and gentlemen' ...**

**VILLABONA-ZIZURKIL** ▶ Jesusen Bihotza ikastolako txikienek 'English festival' emanaldia eskaini zuten, atzo, jendez betetako Gurea aretoan



Zazpi antxumeen istorioa ingelesez entzuteko aukera ere izan zen Gurean. I. GARCIA

**IMANOL GARCIA**

Ekitaldi polita egin zuten atzo Jesusen Bihotza ikastolako ikasle txikienek Gurea aretoan. *English festival* emanaldia eskaini zuten eta, izenak dioen bezala, ingelesez abestu eta antzeztu zuten. 4 urtetik hasi eta Lehen Hezkuntzako 6. mailara artekoak izan ziren protagonista taula gainean, eta aretoa erruz betetzeari lortu zuten.

Asteburuan beste bi ekitaldi berezi burutu zituzten Jesusen Bihotzakoei 40 urteurrenean. Alde batetik, afaria egin zuten 120 lagun inguruk Aburuzko sagardotegian. Giro ederrean aspaldi elkar ikusi gabekoek lehenagoko garaia gogoratzeko aukera izan zuten mahai eta kupelen bueltan. Bestalde, Iker Goenaga ikasle ohiaren konzertura 150 bat lagun joan ziren larunbat gauean, Olaederan. Oraindik, baina, bada zer ospatu; adibidez, ikastolaren jaia datorren larunbatean.

**hitza** Harpidedunen txokoa

**Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu**

- 1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
- 2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

**Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!**

**PARTE HARTZEKO:**  
 Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza • Araba etorb.5 • TOLOSA**  
 Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAn **ZORTE ON!**

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

**1 TENERIFERA BIDAIA**  
 2 lagunentzat astebeteko egonaldia

**2 OTORDU EDERRA**  
 2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean

**LAUTREK**  
 bidaia agentzia  
 korreo kalea, 52 • TOLOSA  
 Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21  
 Faxa: 943 67 39 12  
 zure neurriko bidaliak antolatzen ditugu

Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa  
 Tel.: 943 88 28 93

**bete zure datuak**

Harpidedunaren kodea.....  
 Izena.....  
 Abizenak.....  
 Helbidea.....  
 Herria.....P.K.....  
 Telefonoa.....  
 Peletronikoa.....